

# ARRASATE **Bizirik!**

ARRASATEKO MERKATARITZA ETA ZERBITZUEN ALDIZKARIA • 12. zenbakia • 2011ko urria



04 Aste berdea

## Merkataritzatik ingurumena babestuz

06 **Protagonista**  
Josemari Velez de Mendizabal

08 **Merkemerkaua**  
La feria preferida para vendedores y clientes

12 **Erdiguneko sarbideak**  
Mendeetan zelatan dauden arkuak



Arraindegia  
**BASOARTE S.A.**



### Ondarroako arraina

☎ 943 77 04 57  
☎ 637 80 21 53

Araba etorb., 16 - SAN ANDRES  
20550 ARRASATE-MONDRAGON  
(Gipuzkoa)

☎ Bulegoa: 94 683 07 45

Ibaí-Arte TXARTELAREKIN ...

Urrian eta Azaroan

**U  
S  
T  
E  
K  
A  
B  
E  
K  
O**

**D  
E  
S  
K  
O  
N  
T  
U  
A  
K**



**4.000€**

Deskontuetan \*

En descuentos \*


**D  
E  
S  
C  
U  
E  
N  
T  
O  
S**

**S  
O  
R  
P  
R  
E  
S  
A**

CON LA TARJETA DE Ibaí-Arte

En Octubre y Noviembre

\* Alzeratutako eta zerretan, dauden, eraketetan izan ezik.  
\* Excepto compras aplazadas y a crédito



Arraindegia  
**BASOARTE S.A.**



### Ondarroako arraina

☎ 943 77 16 79  
☎ 600 47 43 82

Olarte, 3  
20550 ARRASATE-MONDRAGON  
(Gipuzkoa)

☎ Bulegoa: 94 683 07 45

### 04 Aste berdea

Merkataritzatik ingurumena babestuz



### 06 Protagonista

Josemari Velez de Mendizabal



### 07 Elkarteak

Ekin Emakumeak elkarteak



### 08 Merkemerkaia

La feria preferida para vendedores y clientes



### 10 Gurea ezagutzen

Maritxu Kajoi



### 11 Motzean • Breves



### 12 Erdiguneko sarbideak

Mendetan zelatan dauden arkuak



### 14 Udaletik

Desde el Ayuntamiento



Argitaratzailea: Ibai-Arte  
175 p.k. • 20500 Arrasate (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 79 30 90 • www.ibaiarte.com

Egilea: Arteman komunikazioa  
Argazkiak: Arteman komunikazioa / Josetxo Aranzabal  
Ale kopurua: 9.000  
Lege gordailua: SS-1726-2008

# Alor askotan eragiten

*Impulsando muchas áreas*



Gabino Yarza / Ibai-Arteko presidentea

U da mota askotariko kanpainez agurtu dugu. Ibai-Arte txartelaren erabiltzaileen artean 15 egunetarako ogia doan zozketzen hasi genuen iraila. Merkataritza Berdearen Asteko hirugarren edizioaz jarraitu dugu. Udalaren eta Eusko Jaur-laritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntzaz, jasangarritasuna ezagutu eta ingurumena hobetzeko haur eta helduentzako ekintzak prestatu ditugu. Eredu izateko helburuarekin, erosketak egiteko 100 orga zozketatu ditugu. Honekin, plastiko poltsen erabilera gutxitu, kotxea albo batera utzi eta erosteko era tradizionala bultzatu nahi dugu, zuen fideltasuna sarrituz. Eta, gainera, aste berean udaberri-udako lehen Merkemerkaia ospatu genuen.

## 30 saltokik eman dute izena Merkataritza Bikainaren programan

Arrasate Bizirik-eko azken zenbakietan Merkataritza Bikainaren programaz informatu genizuen. Ibai-Arte Eusko Jaur-laritzaren programaren aldeko apustua egin du eta 30 saltoki inguruk izena eman dute, saltokien kalitatea hobetu eta zerbitzu aparta eskaintzeko helburuz.

Halaber, Ibai-Arte txartela inoiz baino indartsuago dator, urrian eta azaroan ustekabeko deskontuak banatuz, bizi dugun garai ekonomiko zailean lagungarri izan daitezkeenak.

Hurren arte!

H emos despedido el verano con una gran variedad de campañas. Comenzamos septiembre sorteando 15 días de pan gratis entre los usuarios de nuestra tarjeta. Una campaña que habéis recibido con entusiasmo.

## 30 comercios se han apuntado en el programa de Comercio Excelente

Continuamos el mes con la tercera edición de La Semana de Comercio Verde, en la cual, junto al Ayuntamiento y el Gobierno Vasco, hemos organizado actividades para niños y adultos sobre sostenibilidad con el medio ambiente. Para dar ejemplo, hemos sorteado 100 carros para la compra que han sido acogidos con ilusión. Queremos reducir el uso de bolsas de plástico y premiarlos. Y, además, la misma semana celebramos el primer Merkemerkaia de primavera-verano.

En anteriores números de Arrasate Bizirik os hemos informado acerca del programa de Comercio Excelente. Ibai-Arte ha apostado fuerte por este programa del Gobierno Vasco y cerca de 30 comercios se han apuntado para mejorar la calidad de su establecimiento y ofrecer un servicio mejorado.

Asimismo, la tarjeta Ibai-Arte viene fuerte, repartiendo jugosos descuentos en octubre y noviembre que pueden ser una buena ayuda para la situación económica que padecemos.

Hasta la próxima!





# ASTE BERDEA

## *Merkataritzatik ingurumena babestuz*

*Urtero legez Merkataritza Berdearen Astea izan da Arrasaten. Zazpi egun hauetan herritarren esku-hartzea bultzatu dute herria berdez margotzeko asmotan. Helburua lortu dute, ehunka pertsonak hartu baitu parte. Birziklapena hizpide izanik ingurumenarekin tentuz jokatzeko eskatu diete herritarrei.*

Garapen jasangarriarekin duen konpromisoa agertzea da xedea, ingurumenak duen garrantzia azaltzea eta Arrasateko merkataritza promozionatzea. Hala definitu dute Ibai-Arte elkartetik hilaren 16tik 22ra izan den Merkataritza Berdearen Astea.

Hirugarren urtea da ekimen hau gauzatzen dela. Herriko merkataritza hobetzea gerizpe izanik, aste honetan Natura zaintzeak du garrantzia. Urteroko erro berbera jarraitu dute, aste osoan ekintza ezberdinak eskainiz: birziklapen tailerrak, jardunaldiak, eta Udalak antolatu dituen bizikleta bira eta birzikleta azoka, besteak beste.

Orain arteko haria galdu gabe, berrikuntza ere bilatzen dute. "Urtero ekintza berriren batekin herritarrek ustekabe harrapatzen saiatzen gara eta horretan jarraituko dugu" diote Ibai-Arteetik. Aurten, energia berriztagarri sortutako kale ikuskizuna izan da berezitasun handiena. Agertokia eguzki plaka fotovoltaikoekin egina dago, soinua eta argia bizikleten oinpekoekin eraginda sortu dute eta material guztia ibilgailu biodieselean garraiatzen dute. Emanaldia martxan jartzeko herritarren esku-hartzea izan dute.

---

### **Aurten, energia berriztagarri sortutako kale ikuskizuna izan da berezitasun handiena**

---

#### **Ume zein helduetzako ekintzak**

Jarraitasuna lortu nahi dute honela, herritarrek kontzientziatze aldera. "Umeak nahiz helduak, bezeroak nahiz merkataria", guztien arreta bereganatu nahi dutela diote elkartetik. Umeentzat birziklatutako materialekin diru zorroak egiteko tailerra antolatu zuen Txatxilipurdik. Helduentzako, aldiz, Udalak mugikortasun eta irisgarritasun tailerrak egin ditu. Merkatarientzat Kulturaren jardunaldi bat aurreikusita zegoen, baina atzeratu dute. Oraindik ez dute data berria jarri. Hitzaldia Bizkaiko Merkataritza Berdeak duen programari buruzkoa da.

#### **100 orga zozketatu dituzte**

Orain dela bi urte bezala, Ibai-Arteek orgak eskaini ditu. 2009an baino 80 orga gehiago zozketatu dira, 100 guztira. "Erosketak egiteko era tradizionalera itzuliz, plastikozko



Irailaren 24an Ibai-Arteek erosketak egiteko 100 orga zozketatu zituen bezeroen artean; irudian irabazleetako batzuk.

## 100 orga zozketatu dituzte, plastikozko poltsak ekidin eta auto gabeko kontsumoa bultzatzeko

boltsak ekidin eta auto gabeko kontsumoa bultzatzen dugu", azaldu digute. Lehen urtean banatu ziren telazko boltsek eragin handia izan dutela gehitu dute eta merkatariek erabilera hau bultzatzen dutela. "Orgek harrera berbera izatea" espero dute.

Jende askok parte hartu duela aitortu digute, ilusioz. Antolatzaileak eta merkatariek ere gustura daude ekimenarekin. "Eskertu egiten dute gure esfortzua eta horrek poztu egiten gaitu" aitortu digu Sikol dendako Yolanda Sanchezek. Urteak urtera harrera hobea duela esan digu teknikariak eta herritarrek saiakera handiagoak egiten dituztela ingurumena zaintzeko. Merkatariek aste honetako ekintzak usadio bilakatzeko, "gogorazten ibiltzen gara, jendeak ahaztu ez dezan" gehitu du Sikol dendako jabeak. ■



Energia berriztagarriak erabiliz, La Banda Manzanak kontzertua eman zuen Seber Altube plazan.

### COMERCIO SOSTENIBLE

*Acaba de finalizar la Semana del Comercio Verde de Ibai-Arte. Una vez más, los comerciantes han querido concienciar a los arrasatearros sobre el reciclaje y el cuidado del medio ambiente. Han realizado un taller de confección de monederos a partir de material desechado, con la ayuda de la asociación Txatxilipurdi. También han sorteado cien carros de compra entre los clientes de Ibai-Arte y han traído a la localidad el espectáculo musical de La Banda Manzana, para cuyo desarrollo es necesaria la energía renovable. La acogida ha sido muy buena.*



**Josemari Velez de Mendizabal**

Dibulgatzailea

**“Hasi nintzen idazten orain dela 40 bat urte, zaila zelako euskarazko liburu interesgarriak aurkitzea”**



*Velez de Mendizabalek dio ez dela idazlea, ezta historialaria, baina egunero idazten du, liburu ugari argitaratu ditu eta aspalditik Arrasateko eta Aramaioko historiari buruz ikertzen dihardu. Eusko Ikaskuntza, Euskonews eta On Jose Migel Barandiaran Fundazioa gidatzeaz gain, antzerkian ere badabil eta hainbat blog kudeatzen ditu.*

**Zer eman dizu euskara ikasteak?**  
Nire nortasunaren osotasuna eman dit, ordura arte vasco nintzelako eta gero bihurtu nintzen euskaldun. Txikitatik nekien nortasuna herren nuela. Amaren aldekoek ez zekiten eta haurtzaroan ez nuen euskara entzun. Aitak ozenki egiten zuen amets euskaraz ia egunero, eta etxekook ez genion ulertzen.

**Gertatutakoa beste batzuek kontatu dezaten idazten duzu?**  
Hasi nintzen idazten, orain dela 40 urte euskara ikasi nuenean zaila zelako euskarazko liburu interesgarriak aurkitzea, baina badakit ez naizela euskal literaturaren historian agertuko. Denetatik egin dut, bete gabeko esparruak aurkitu ditudalako. Adibidez, 1985ean amuarrainei buruzko metodologia liburu bat argitaratu nuen euskaraz ez zegoelako ezer.

**Zein da oraindik idatzi ez duzun liburua?**  
Ez dut esango liburuak idazteaz nekatu naizenik, baina ez dut uste beste libururik idatziko dudanik enkarguren bat ez bada, nahiz eta baditudan bi inprimategian. Orain nahiago dut Internet. Askoz hurbilagoa eta beroagoa da, feed-backa berehalakoa delako. Eta nire blogek aukera ematen didate hausnarketak egin, eta Arrasateko eta Aramaioko historiari buruz idazteko.

**Antzerkiak zer eman dizu? Eta interpretatzeak?**  
Antzerkiak literaturak baino aukera gehiago ematen ditu barrukoa ateratzeko. Gainera, gai izan naiz nire buruari barre egiteko. Baina orain nahiago dut antzerkirako idaztea, eta Doke taldekook pentsatu dugu irriantzerkiarekin jarraitzea; hala, beilategi bati buruzko testu

“**Enkargurako ez bada ez dut liburu gehiago idazteko asmorik; nahiago dut Internet, askoz hurbilagoa eta beroagoa da**”

komiko bat idatzi dut. Ez dakigu noizko prestatuko dugun...

**On Jose Migel Barandiaran fundazioko presidente zara...**

Bai, urtebete daramat. Eusko Ikaskuntzak eta On Jose Migelek berak sortu zuten 1988an. On Jose Migelen ideia izan zen. Helburua da bere obra babestea, corpus-a ematea eta gero ezagutaraztea, baita bere balore humanistikoak ere. Eginkizun handienetakoa da balore horiek gaur egun antropologian, etnografian, arkeologian eta orohar euskal kulturaren dabil-tzan protagonistei txertatzea.

**Inoiz jubilatuko zara? Zer da jubilatzea zuretzat?**

Jubilazio hitza urte jubilarretik

dator: hainbat urtetan lan egin ostean atsedena hartu eta nahi zutena egitea. Eta ni horixe egiten ari naiz, nahi dudana.

**Zer falta zaio Arrasateri?**  
Beste herri askotan bezala, elkarren arteko bizikidetzarako egiazko borondate politikoa eta soziala. Badirudi elkarri bizkarra emanda bizi garela eta begiratu beharko genioke elkarri begietara. Arrasaten eskatuko nioke Udalari horren lidergoa eramatea. Gure elkarbizitza erosoagoa eta autentikoagoa izatea.

**PREJUBILADO ACTIVO**

*Josemari Velez de Mendizabal ha desempeñado importantes cargos en Eusko Ikaskuntza, Euskal Idazleen Elkarte eta en la revista digital Euskonews, entre otros, en el pasado. Actualmente es el presidente de la Fundación Don Jose Migel Barandiaran, y también sigue trabajando para la divulgación de la historia de Arrasate y Aramaio a través de su blog “Hots begi danbolinak”. Acaba de escribir una nueva obra para el grupo de teatro Doke.*

> EGIN EMAKUMEAK ELKARTEA

## Normalización del euskera entre las mujeres

*Ekin Emakumeak Elkarteak es una asociación dedicada al desarrollo e igualdad de oportunidades y la normalización del euskera entre las mujeres. Para ello organiza cursillos, conferencias, excursiones, ejercicios prácticos para mejorar el euskera (mintzapraktika)... Estos últimos años Ekin ha trabajado en la integración social, lingüística y cultural de las mujeres.*

Ekin Emakumeak Elkarteak nació como asociación en 1995, pero 10 años antes se había creado dentro de AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) un grupo de trabajo para tratar estos temas. Por tanto, aún sin asociarse empezaron a trabajar en 1985.

### Trabajo con inmigrantes

Estos últimos años la asociación ha trabajado principalmente en la integración de mujeres inmigrantes en Arrasate. Para ello, han recogido información, realizado reuniones y creado nuevos proyectos. Reflejo de dicha tarea es el proyecto realizado en 2004, "La memoria del proyecto sobre migración de las mujeres". Estas son algunas conclusiones recogidas en la memoria: las prioridades de las mujeres inmigrantes son encontrar un trabajo y normalizar su situación; valoran positivamente aprender euskera para así relacionarse y comunicarse mejor en el trabajo y en todos los ámbitos, con todos los ciudadanos.

Desde 2004, Ekin Emakumeak Elkarteak dirige un "Módulo de recepción y formación para mujeres inmigrantes." Después de trabajar durante tres años con mujeres en el curso 2008-2009 se amplió el servicio prestado a ciudadanos en situación de rechazo social, trabajando con Cáritas y el Servicio Social del Ayuntamiento de Arrasate. ■

Con este proyecto se quiere crear un vínculo con los ciudadanos de Arrasate, y al mismo tiempo lograr una integración plena basada en la igualdad, que garantice los derechos de los inmigrantes. Estos son los principales objetivos en estos momentos: posibilitar un espacio adecuado para que estos puedan tener un primer contacto e intercambio con las instituciones locales, la cultura y el euskera; desarrollar espacios y actividades para aumentar su red de contactos; ofrecer un módulo de formación básica para el cuidado y la ayuda a terceras personas; sensibilizar sobre la importancia de hablar euskera y dirigirlos a los euskaltegis; y, por último, ampliar el proyecto a distintos municipios de la CAV.

### Amplia oferta de cursos

Para cumplir esos objetivos, a medio plazo Ekin realizará entre otras las siguientes actividades: taller de manualidades, cursillo de reciclaje de ropa, cursillo de defensa personal, conferencia sobre sexología, conferencia histórica sobre las vestimentas de las mujeres del País Vasco, taller de costura para realizar un traje típico vasco, "Módulo de recepción y formación para mujeres inmigrantes y personas en situación de rechazo social" y servicio de maternidad. ■



Mujeres de Ekin haciendo talos a favor del Sahara en 2009.



En el 15 aniversario de las asociación, en 2010, homenajearon a sus fundadoras.

## La plena integración y formación de las mujeres inmigrantes es uno de los grandes logros de la asociación

### EMAKUMEEN ARTEAN EUSKARAREN NORMALKUNTZA ETA INTEGRAZIOA BULTZATUZ

*Ekin Emakumeak Elkarteak emakumeen garapena eta aukera berdintasuna errazteko lanean diharduen eta emakumeen artean euskararen normalkuntza bultzatu nahi duen elkarteak da. Horretarako ekintza ezberdinak antolatu izan ditu, bai emakume euskaldun berri eta zaharrentzat eta baita euskara ikasten ari direnentzat ere. Integrazio sozial, linguistikoa eta kulturala bultzatzen ari da urte hauetan.*



# MERKEMERKAUA

## *La feria preferida para vendedores y clientes*

*Este año, por primera vez, la feria Merkemerkaua organizada por Ibai-Arte ha celebrado dos ediciones: una en febrero y otra en septiembre. Esta se celebraba siempre en el frontón Uarkape, pero en 2011 han decidido sacar los puestos a la calle y han ganado con el cambio.*

La feria Merkemerkaua fue creada por el Consistorio en 2007 para ayudar a los comerciantes, y en 2009 Ibai-Arte se hizo cargo de la organización. El objetivo es facilitar herramientas a los pequeños comerciantes para competir con las grandes superficies; promocionar la oferta comercial local; y ofrecer

productos de calidad a más bajo precio. Además, ofrece la posibilidad de dar salida a productos en stock.

Merkemerkaua ha cambiado a mejor; eso es lo que destacan tanto la mayoría de los socios de Ibai-Arte como los clientes. Ambos prefieren organizar la feria al lado de sus tiendas. En las dos ediciones de 2011 han participado más comerciantes, y ha sido mucha la gente que ha hecho sus compras en ellas. En opinión de Ibai-Arte, organizar la feria en Uarkape es más caro, porque hay que alquilar material y mantener las tiendas abiertas al mismo tiempo; además, hay que transportar todo el género hasta el frontón. Ahora, en cambio, poniendo los puestos al lado

de las tiendas, es mucho más cómodo para ellos.

### **Casco viejo y alrededores**

La mayoría de las tiendas ponen sus puestos en el exterior, en el casco viejo y sus calles adyacentes. Y aquellos que no tienen suficiente espacio utilizaron Seber Altube en febrero y la plaza Biteri en septiembre. En febrero participaron 32 comercios y en septiembre 27. Es la primera vez que se celebran dos ferias, y los resultados son muy buenos para Ibai-Arte. Además, en función de los resultados obtenidos en la encuesta realizada la gran mayoría de comerciantes optan por celebrar dos ferias al año.

---

**La mayoría de los comercios ponen sus productos de fuera de temporada o de stock en el exterior de sus tiendas**

---

Gustura ibili zara pasa berri den Merkemerkaun?  
Idea ona da Uarkapen egin beharrean, azoka denden aurrealdean egitea?

## HERRITARREN AHOTIK



Maria Martín Blazquez

Desde que empezaron a organizarlo me he pasado todos los años. Me parece una buena iniciativa, muy interesante. Siempre que voy encuentro algo que me gusta y termino llevándome algo a casa. Solía ir a Uarkape, pero prefiero que se haga en la calle, al lado de las tiendas. Me gusta más. Estás en la calle y vas a lo que te interesa. Hago uso de la tarjeta Ibai-Arte y les apoyo en estas iniciativas.



Carmen Uribarren

Bai, oraingoan ere egon naiz Merkemerkaun; normalean ez dut hutsik egiten. Eta joaten naizen gehienetan aurkitzen ditut aukera aproposak: gauza dotoreak, prezio onekoak eta politikak. Merezki izaten du, bai. Nik nahiago dut Merkemerkaun kalean egitea Uarkape barruan baino, eguraldiak laguntzen badu behintzat. Gauzak ondo, lasai eta leku nahikoarekin ikusteko aukera egoten da, kalean pasean zabiltzala.

## SALTZAILEEN AHOTIK



Marisa Etxebarria (Lore)


Bai, gu oso gustura gaude. Aurreko Merkemerkaun baino hobea izan da. Idea oso ona da noizbehinka produktuak dendatik kanpo ateratzea. Jendea ere gustura ibiltzen da, kalean, paseatzen, salgaiak ukitu eta ikusten. Guk parte hartu dugun bigarren edizioa da. Gu ez ginen Uarkapera joan, aldi berean denda zabalik izatea zaila delako eta dendatik eraman behar delako. Denda alboan egitea erosoagoa da.



Esti Kortabarria (Loramendi Kirolak)

Oraingoan ere emaitza onak eman ditu; gustura gaude. Jende gehiena goizez etorri da produktuak ikusi eta erostera; arratsaldez lasaiago egon da. Eman digu aukera udako produktu asko ateratzeko eta kentzeko; eta guretzat hori oso aproposa da. Arropa kanpora atera genuen eta zapatillak barruan. Jendea oso gustura ibili da begira eta erosten. Nahiago dugu denda alboan egitea Uarkapen baino, erosoagoa da.

## Comercios participantes



## Evolución de Merkemerkaun

El Consistorio creó la feria Merkemerkaun, a petición de la asociación Ibai-Arte, con el objetivo de ayudar a la asociación y a los comerciantes que la componen, y lo consiguió. Hasta 2010 la feria se celebró anualmente en el frontón Uarkape durante un fin de semana entero. En 2009 Ibai-Arte pasó de colaborador a organizador, y en 2011 sacó la feria a la calle y la adaptó a un solo día. Todas las ediciones han con-

tado con una media de 20 comerciantes participantes y aún siendo la mayoría arrasatearras, también ha contado con otros de Aretxabaleta, Eskoriatza y Bergara.

En 2011 Ibai-Arte ha doblado su apuesta y en vez de una, ha organizado dos ferias en el mismo ejercicio. Los resultados han sido muy buenos, como para ser repetidos: en febrero participaron 32 comercios y en septiembre 27.



Varios negocios sacaron sus productos a la calle Olarte.

Es la primera vez que se organizan dos ferias en el mismo año, y los resultados han sido muy satisfactorios

## MERKEMERKAUN, ALDAKETAK ONERAKO

Denboraldiz kanpoko produktuak merkeago saltzeko azoka 2007an jaio zen Ibai-Arteren eta Arrasateko Udalaren ekimenez. Hainbat edizio Uarkape pilotalekuan egin zituzten asteburu osoz. Gerora, 2009an Ibai-Arte antolakuntzaren ardura osoa hartu zuen; eta 2010ean azoka birmoldatzea erabaki zuen: hala, azoka kalera atera eta egun bakarrean egiten hasi ziren. Emaitzak oso onak izan ziren, eta saltzaileen eta bezeroen harrera oso ona. Merkemerkaunaren beste berrikuntza bat da 2011n bi edizio egin dituztela: bata otsailean eta bestea irailean. Saltzaileak eta erosleak pozik daude aldaketekin eta hala jarraitzea erabaki dute.

Iturria: Maritxu Kajoi. 25 urte liburu.

# Maritxu Kajoi

## > Herriak asmatutako ospakizun 'elegantea'

Maritxu Kajoi bixamona gainetik kendu gabe zaude oraindik? Izebaren soinekoa non duzun ez dakizu? Koadrilakoek Facebook-en jarritako argazkietaz komentarioak entzuten ari zara? Arrasateko bereizgarria da herritarrek sortutako Ama Birjina gurtzen duen jai atea, baina ba al dakizue noiz eta zelan jaio zen?

**600**  
litro ardo

1981ean, herriko plazako iturritik ardo beltza irteten hasiz; ordura arte inork ez zekien Maritxuk mirariak egin zitzakeenik. Rumbako Cruz Torresi erositako 600 litroak berehala edan ziren; inork ez ikusteko Mondragon ile-apaindegian egon zen ardoa gordeta.



**“Txantxote-k Parrokiako ate nagusira begiratu eta erantzun zien: 'No tenéis ni idea, Maritxu es esa, Maritxu Kajoi, patrona de los txikiteros!' ”**

**“1977ko urriaren 5ean hasi zen Ama Birjina baten omenez ezagutzen den jai ganberroena”**

Urriaren 7an arrasatearrok, urtero legez, arropa dotoreak armairutik atera genituen eta kalera irten ginen mahaiaren bueltan lagunekin elkartu eta parranda egitera. Txikiteroen jaia da Maritxu Kajoi eta gaur egun gutxi dira egunero koan txikiteoan ibiltzen direnak, baina izugarrizko arrakasta izan du beste behin. Euskal Herri osoan ezaguna da, baina gutxi ezagutzen dute bere historia.

### "Txantxote"-k asmatua

70eko hamarkadako hasieran gaur egun baino jende askoz gehiago ibiltzen zen txikiteoan egunero eta koadrila ugari eta handi samarrak ibiltzen ziren tabernaz taberna

txikitoak edaten. Tabernetak giroa oso desberdina zen, eta herritarrak gauz kantuan ibiltzen ziren; izan ere, sasoi hartan ez zegoen musikarik tabernetan. Mota askotako jendea ibiltzen zen txikiteoan eta horien artean aurkitu genezakeen Pepe Txantxote, Arrasateko gizon alai eta saltseroa. Makuluekin ibiltzen zen txikiteoan, eta koadrila batzuk ikusten zuten bakoitzean tragoxka batera gonbidatzen zuten. Hark, edalontzia altxatu eta esaten zuen: "Por Maritxu!". Behin batean koadrila haietako gazte batzuk, Maritxu bere emaztea zelakoan, adarra jotzen hasi ziren. Zalantzak argitze aldera, Parrokiako ate nagusira begiratu eta zera erantzun zien: "No tenéis ni idea,

Maritxu es esa, Maritxu Kajoi, patrona de los txikiteros!".

### Birritan atzeratu beharra

Sasoi hartan, herrian kultura ekintzak antolatzen ibiltzen zen jendea batu eta 1975ean Maritxu Kajoi festa sortzea erabaki zuten, baina Txiki ta Otaegin zein Iñaki Etxabe arrasateararren hilketek jaia atzeratzera bultzatu zituzten. Eta 1976an tamalez, Maritxu Kajoi baino aste bat lehenago, On Jose Luis Iñarra herriko parrokoa hil zen. Horregatik, 1977ko urriaren 5era arte itxaron behar izan zuten, eta orduan hasi zen Ama Birjina baten omenez ezagutzen den jai ganberro eta herrikoienetakoa dena.

> DESCUENTOS

## Descuentos en octubre y noviembre

Seguimos aplicando descuentos y regalos entre los clientes de Ibai-Arte. En octubre y noviembre, repartiremos 4.000 euros en descuentos sorpresa. Los descuentos se aplicarán una vez por semana a todas las compras que se realicen el día y horario programado sin previo aviso. En el momento de tu compra, sabrás si has sido una de las personas afortunadas. ¡No salgas de casa sin tu tarjeta!



> KANPAINA IRUDIMENTSUA

## Ogi gabeko egunik ez!

Ibai-Arte kanpaina irudimentsua abiarazi du irailean, erosketak elkarteko txartelarekin egiten dituzten erabiltzaileak saritzeko asmoz. Perez Frutadenda, Agirre etxea, Autoservicio Fatima, Solbes, Landaluze Harategia, Azpilikueta Harategia, Feli denda, Salegi Harategia, Galburu eta Izoztegia izan dira ekimenean parte hartu duten saltokiak. Zozketako 100 irabazleek 15 egunetan ogia doan hartu ahal izan dute aipatutako dendatan. Kanpainak Ibai-Arteko bezeroen arreta deitu du, eta modu sano eta desberdinean saritu du fideltasuna.

> JORNADA

## Comercio 2.0. en Debagoien@

Desde la Mancomunidad y la Oficina de Dinamización del Comercio del Alto Deba se organizó una jornada denominada Comercio 2.0. presentada por Aitor Bediaga, profesor en MU y consultor en el centro de investigación MIK. El objetivo fue sensibilizar a los comerciantes de la importancia de Internet y las redes sociales para su negocio; e introducirlos de una forma práctica en las redes sociales. Las tres sesiones tuvieron lugar en la Mancomunidad del Alto Deba: el teórico el día 11, y las clases prácticas los días 17 y 20 de octubre.



> ZOZKETAK

## Uda partean afariak oparitu genituen

Beste behin, erosketak Ibai-Arte txartelarekin egin zituzten bezeroek 30 afari bikoitzen zozketan parte hartu zuten. Bezeroak erosketa egindakoan jakin zuen irabazle izan zen edo ez eta zein jatetxean. Horrela, uztailean, abuztuan eta irailean Hilarion Jatetxean, Hotel Santa Anan, Hama4n (Zerkaosteta), Txoko Jatetxean eta Arteaga-Landetxean eskainitako menu bikainez gozatu ahal izan dute 60 pertsonak.

# ERDIGUNEKO ATEAK

## *Mendeetan zelatan dauden arkuak*

*Arrasateko erdigunea harresiak inguratzen zuela gauza jakina da, baina beste harresi askok ez bezala, hemengoak sarrera asko zituen. Azken mendeetan ate horiek hiribildura sarrera eta irteera itxi edo zabaltzeko funtziorik izan ez badute ere, gehienek zutik diraute oraindik, baina ez guztiek.*

Arrasateko harresia zenak forma obalatua dauka, Erdi Aroko hiribildua da-eta. Bere ateek herritarren segurtasuna bermatzen zuten, egunez joan-etorriak zaindu ondoren, gauz giltzatzen baitziren. Hala, bost atek gauero itxi eta goizero zabaltzen ziren, eta sute kasuan itxi egiten zituzten bertako biztanleriak sua itzaltzen lagundu zezan. Defentsarako izugarritzko garrantzia zuten harresiak eta ateeak.

### **Bostetik hiru arku zutik**

Bost ziren berez hasieran hiribildurako ate eta arkuak, baina hiruk bakarrik diraute zutik: bata, Ferrerias kaletik barrena Zurgin kantoitik bertatik, Monterron jauregiaren parera irteera ematen du eta Arbolapetaren ondoan kokatuta dago. Historialarien esanetan, hau da guztietatik zaharrena, nahiz eta noizkoa den ez duten zehazten. Zurgin kantoiko krimenaren kantoiko moduan ere

ezaguna da. Izan ere, bertan, 1816ko azaroaren 17an Santiago Elias de Aranguren, Monterrongo kontea, fusil batekin erail zuten. Ondorengo auziak zazpi urte eman zituen, baina ez zen inoiz hilketaren egilearen izena jakiterik izan.

Oraindik ikusgai dagoen beste arku bat Kanpantorperako sarrera ematen duena da, San Juan Bataiatzailea parrokiaren atzealdetik Iturriotz kaletik behera eginda Kontzesinorantz doana. Arku hori

**Arrasateko Erdi Aroko harresiak bost ate zituen, gauero itxi eta goizero zabaltzen zirenak**

1795ean eraberritu zuten, eta bere akabera oso landuta dago. Ate honek arte barrokoa gogorarazten duten forma ugari ditu: idi-begi bat dauka sarrerako arkuan eta pinakulu bat errematean.

### **Portaloikoa, Gazteluondotik eramana**

Hirugarrena eta aldi berean ezagunena dena Portaloikoa da, hiribildua Seber Altube plaza eta San Frantzisko elizarekin lotzen

Portaloiko arkuak dotoreenetakoa da; 1950eko hamarkadan egindako argazkia.





Irudietan oraindik zutik dirauten hiru ateak.

## Portaloiko arku 1768koa da eta bere harri guztiak Gazteluondoko arku zenetik hartuak daude

dituena. Erdiguneko beheko atarian dago, herri erdi-erdian, oso gune eza-gunean. Gaur egun bertan ikus daite-keen arku 1768koa da, eta berorren harri guztiak iraganean Gazteluondoko arku zenetik hartuak daude; berez harria Zaraya eta Bergaratik ekarritakoa zen. Diotenez, aldaketa hori egiteraren arrazoiak izan zen ezagunagoa den gune batean arku ikusgarriagoa jarri nahi izatea. Arku honek armari bat dauka goialdean eta pinakulu apaingarri batzuk.

## Zurgin kantoiko arku da guztietan zaharrena, historialarien esanetan

### Bidean galdutakoak

Aipatutako moduan, badira jada ikusgai ez dauden beste bi arku, erdiguneko bi sarreratan zelatan zeudenak: horietatik ezezagunena da Ferrerías kaletik behera joanda, Olarte kantoitik sarrera ematen zuena. 1892an kendu zuten. Denboraren poderioz galdutako beste arku Gazteluondoko errebaletakoa da. Herriaren goialdetik Gasteiz eta Leintz Gatzagako bidearekin lotzen zuen erdigunea. Ate hori XX. mende hasieran kendu egin zuten, lehen aipatutako moduan Portaloikoa ordezkatzeko. ■



### ENTRADAS MEDIEVALES

*El casco histórico de Arrasate amurallado tuvo cinco entradas con sus correspondientes arcos, de los que solo tres siguen en pie en la actualidad: el del Portalón, que da paso desde Seber Altube, data de 1768 y las piedras con las que está hecho fueron trasladadas desde el arco de Gazteluondo ya desaparecido. Otro conocido es el de Zurgin Kantoia, próximo a Arbolapeta, donde fue asesinado en 1816 Santiago Elías de Aranguren, conde de Monterrón. El tercer arco es el de Kanpantorpe, que baja de la calle Iturrioz hacia Kontzesino. Fue renovado en 1795. El quinto arco es el de Olarte, desaparecido en 1892.*

>BIR-ZIKLETA

## Bir-zikleta azoka arrakastatsua, Mugikortasun Astean



Aurten Arrasateko Udaleko Ingurumen Sailak Mugikortasun Astea antolatu du beste behin; eta Bir-zikleta azoka izan da horren izarra. Aurten ere jende ugari gerturatu da bigarren eskuko bizikletak saldu eta erosteko azokara. Hain zuzen ere, azoka hasi baino ordubete lehenago jende asko ibili zen gero erosi nahiko zituen artikuluak aukeratzera. Ingurumen Saileko arduradunen esanetan, "urtean urtean igartzen da azokak interes handia pizten" duela. Eta esan beharra dago arrasatearrez gain, ibarreko beste herri askotako jendea ere joaten dela azokara, dagoeneko oso ezaguna egin baita.

Jendea gogoz joan zen azokara eta erakusgai jarritako bizikleten %50 baino gehiago saldu ziren; horien artean, umeen bizikletak, errepidekoak, mendikoak eta paseokoak. Antolatzaileak pozik daude jasotako emaitzekin.

### Emisio txikiko ibilgailuak

Bir-zikleta azokarekin lotuta, bestelako ekimenak antolatu zituzten. Emisio txikiko ibilgailuen erakusketa jarri zuten, bizikleta eta auto elektrikoekin, eta jendeak ibilgailuok probatzeko aukera izan zuen. Askok nabarmendu zituzten ibilgailuen potentzial, erabilgarritasun, erosotasun eta kalitatea. Horrez gain, euria egin bazuen ere, 80 bat lagunek bizikleta bira egin zuten; horien artean, Aretxabaleta eta Eskoriatzatik etorritako jendea barne.

> ELKARLANA

## Merkataritza dinamizatzeko ekimenak eta laguntzak



Beste urte batez, Udalak eta Ibai-Artek Eusko Jaurlaritzari laguntzak eskatzeko eta herrian merkataritza indartzeko zereginak banatu berri dituzte. Ikertalde enpresak 2010ean Arrasateko Udalarentzat egindako ikerketan jasota dago Arrasateko txikizkako merkataritzako zenbait sektorek gastu-ihes nabarmena dutela. Hala, merkatariei lagundu nahi die Udalak. Horren bidean, merkataritza hirigintzako proiektuak diseinatu eta gauzatu nahi ditu, baita Biteri plazako oinezkoen zirkulazioa hobetu eta eremu bereko merkaritza biziberritzea.

### Ibai-Artek hainbat zeregin

Ibai-Artek, ostera, merkataritza-komunikazioan eta animazioan jarriko ditu ahalegin gehienak eta hainbat ekimen gidatuko ditu, jarduera bateratuak bilatuz. Hori lortzeko, *Arrasate Bizirik!* aldizkaria hiruhilabetean behin kaleratzen jarraituko du; Merkemerka urtean birritan antolatuko dute; baita Merkataritza Berdearen Astea, Gabonetako kanpaina eta fidelizazio kanpainak ere. Helburua da merkataritza-gunera jendea erakartzea, merkataritza jasagarria aldarrikatzea, bezeroei balio gehigarria eskaintzea eta, ondorioz, Arrasateko merkataritza sustatzea. Bestalde, Ibai-Artek bermatzen du elkarteko kideei prestakuntza eta aholkularitza eman eta lehiakortasun maila hobetu, kudeaketa eraginkorragoa izan dadin.



# www.ibaiarte.com

Arrasateko Merkataria Elkartearen sarean gaude...

## egin klik!



# zure iragarkia hemen



**Harremanetarako:**  
Aitziber Lasarguren  
Tel.: 943 79 30 90  
aitziber@debagoiena.net

180 x 80

Kalitaterik onena  
zerbitzurik onenarekin  
zure eskura

Arrasateko Merkataritza eta Zerbitzuak



La mejor calidad  
con la mejor atención  
a un paso

Comercios y Servicios de Arrasate

**AHOLKULARITZA / SEGURUAU /**

**INMOBILIARIAK**

ANBOTO  
ASESORIA ARKUPE  
MIKEL ELORZA  
URRATS

**ALTZARIAK / DEKORAZIOA**

ARANZABAL  
ARREGI ARTE  
ARTE LENIZ  
EHUNE  
EYA ALTZARIAK  
IKER  
MUEBLES AMETS  
OIHANA  
ORMAZABAL  
UDESIGN SHOP

**ARGAZKI DENDAK**

IKATZ  
JM BERRUETA

**BANKETXEAK**

CAJA RURAL DE NAVARRA  
LA CAIXA

**BAZARRAK**

CENTRO CIEN  
TOKI ON

**BELAR DENDAK /**

**PARAFARMAZIAK**

AITOR BELARDENDA  
BIOTIKA PARAFARMAZIA  
IZADI BELARDENDA I  
IZADI BELARDENDA II

**BIDAI AGENTZIAK**

ARRASATE BIDAIK  
BARCELO VIAJES  
EROSKI BIDAIK

**BITXITEGIAK**

OSKAR VITORIA  
ZUBIAGA

**ENTZUMEN ZENTRUAK / OPTIKAK**

ARRASATE OPTIKA  
GAES  
INSTITUTO OPTICO  
ITZIAR UGARTE OPTIKA  
MULTIOPTICAS  
PORTALOI OPTIKA

**GOZOTEGIAK / OKINDEGIAK**

GALBURU  
HEMEN  
IRATZEDER  
IZOZKITEGI  
MURUAMENDIARAZ

**HOTELAK / JATETXEAK**

ARTEAGA LANDETxea  
HAMA4  
HILARION  
HOTEL MONDRAGON  
HOTEL SANTA ANA

**ILEAPAINDEGIAK / ESTETIKA**

**ZENTROAK / ILERAKO PRODUKTUAK**

**ANGELA ESTETIKA ZENTRUA**

BITXORI  
DISTIRA  
GORKA  
LIRAIN  
M.L

RICHI  
SALON HERMI

TXANPU

TOÑI

VIRGINIA

XARMA

ZIRT-ZART

**JANARI DENDAK**

AGIRRE-ETXE  
AUTOSERVICIO FATIMA

AZPILIKUETA

BASOARTE

BASOARTE

CHURRERIA LA EXQUISITA

FELI

FRUTERIA PEREZ

GORKA HARATEGIA

JOSE ELORZA HARATEGIA

LANDALUZE

OTAMENDI

SABURDI

SALEGI

SOLBES

**JANTZI DENDAK**

BOUTIQUE ELENA

GARRAXI

GILI-GILI

KILI-KOLO

LASAGABASTER

LUKO

MABEL

MARKIEGI

MEHER

MERCHE

NOTHING WITHOUT

SUGAR

TROKO

UDALAITZ

ZONA 16

**KIROL DENDAK**

FORUM

LIZARRALDE KIROLAK

LORAMENDI KIROLAK

LORAMENDI KIROLAK

ERREKAMENDI

URIASTE SPORT

**LORA DENDAK**

BUART

MAYTE

ONTZI DENDA

**LURRINDEGIAK**

ALTUNA

GOIARA

LORE

ZABAETA

**LENTZERIAK / MERTZERIAK**

BEA

CASA DE LABORES

CECIAGA

ITXASO

JOSLE

LAUTARO

LILURA

OIHAL

PHILAR

SIKOL

TELAS PILAR

TXURI-BELTZ

**OPARI DENDAK**

BEINKE

DORLE.M

ELKORO BISUTERIA

HIKA

KAPIKUA

LUXURY & FASHION NEILA

RESUSTA-KARRIKIRI

**TABERNAK**

DUBLIN IRISH PUB

ITURRIOTZ

ITZALA

LORATEGI

MONTE

TXOKO 2

ZUK NAHI

**TRESNA ELEKTRIKOAK**

ALMACENES ARRASATE

ARANZABAL

EXPERT-ELKORO

EYA

MILAR ELKORO

**UMEENTZAKO ARROPA**

BC

HAURTXOA

TTIKITTO

TXUNTXURUNBERDE

UME

**ZAPATADENDAK**

ANES

ARTZ

KORO ZABAETA

OSKARBI

TIPI-TAPA

ZUBIA

**BESTEAK**

ADM.LOTERIA N°1

ALDEDI

ARRASATE ZOO

BED'S

CLINICA DENTAL ARREGI

DANATEK

DEBA PREST TINDATEGIA

EKOBAI BIRZIKLAPENA

ESTACION DE SERVICIOS ARRASATE

J.G. IMPRESION DIGITAL

MICROS INFORMATIKA

PARLANCE HIZKUNTZA AKADEMIA

PORTALOIKO KIOSKOA

TAMAYO PAPER DENDA

VODAFONE

ZUR LUR JOSTAILUAK